



FORO DE BARRIO
AUZO-EZTABAIDAGUNEA
2018
TXANTREA

Fecha / Data:	18/03/20
Hora / Ordua:	18:30
Lugar / Kokalekua:	Biblioteca de la Txantrea / Txantreako Liburutegian
Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:	Joxe Abaurrea
Participantes / Parte-hartzaileak:	28 personas/pertsona: 21 hombres/gizon, 7 mujeres/emakume
Otros / Bertze batzuk:	
Moderadora / Moderatzailea:	Floren Luqui (técnico de Participación / Partaidetzako teknikaria) SDC: Naiara Zazpe eta Gabriel de Diego

Apertura / Hasiera

Eztabaidagunearen aurkezpena, Floren Luquiren eskutik

Luquik, Hiritarren Parte-hartze Arloko teknikariak, auzo-eztabaidagunerako ongietorria egin die bertaraturakoei, eta eskerrak eman dizkie etortzeagatik.

Jarraian, barkamena eskatu du proiektio bat eragotzi duten arazo teknikoengatik, horrek eztabaidagunea berandu samar hastea eragin baitu.

Azkenik, Joxe Abaurrea zinegotziari hitza eman aurretik, dei egin du eztabaidagunean aktiboki parte hartzera eta auzotarren, komunitatearen edo elkarten proiektuen edo ekimenen berri ematera.

El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

Joxe Abaurrea auzo-zinegotziaren parte-hartzea

Udalak auzoan egin dituen edo laster egiteko dituen esku-hartze edo jarduketa-ildoak banakatu ditu Abaurreak.

Oro har, honako alderdi hauetan zentratu da:

□I. Salestarrak: Abaurreak berretsi du eraikinaren 2/3 erosi dutela, milioi bat euroan, gutxi gorabehera.

Obra orokorrak egingo dituzte irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko, ekitaldi-aretoan kasu, eta espero dute irailerako edo urrirako obrak bukatuta egotea eta zentroa irekitzea.



□II.- Hego Parkea: Zinegotziak adierazi du hurrengo egunean (martxoaren 21a) Hirigintza Alorreko Gerentzian aurkeztuko dela oinarritzko proiektua.

Hura onetsi ondoren, behin betiko proiektua landuko da, eta horretan xehetasun eta alderdi guztiak jasoko dira.

Epeari dagokienez, aldameneko urbanizazioak baldintzatuko du.

Lehenbiziko fasea udalak ordaindu du, eta 2018ko amaiera edo 2019ko hasiera aldean amaitzea aurreikusten da.

□III. Auzoaren izen ofiziala: Abaurreak adierazi du auzotarren eta auzoko kolektiboaren eskaerari erantzun diotela.

□IV.- Erraldoiendako lokala: Felixen plazan, 45m²-ko lokal txiki bat dago, Nafarroako Gobernuarena.

Proiektuarekin, lokal hori *erraldoien etxea* bilakatu nahi dute; Abaurreak aipatu du udalean konpontzeko daudela azken kontu eta alderdi juridiko-legalak.

□V.- Magdalena: Joan den otsailean herritarrekin egindako topaketa aipatu du zinegotziak, zinean Magdalenarekin loturiko bi gairi heldu baitzitzaien.

1) Trafikoaren antolaketa aldatzea (ongi baloratu zuten), eta 2)

Uholde-arriskuari buruzko azterlan bat, *uraren kultura berri batean* oinarrituta; azterlan horretan definituko da Arga ibaiaren ibai-eremua.

. VI.- Mendigorria kalea: Kale horretan izan zen istripu hilgarria aipatu ondoren, Abaurreak adierazi du kalea gaizki diseinatuta dagoela, eta aldaketak eta hobekuntzak behar dituela.

Ildo horretan, gogorarazi du plan batean jaso dagoela biribilgune bat eraikitzea Mendigorria, San Kristobal eta Torralba del Río kaleak elkartzen diren gunean.

Jakinarazi duenez, horri buruzko bilera teknikoak egingo dira gaia lantzeko, eta bertze aukera batzuk ere hartuko dituzte kontuan, semaforo bidezkoak, kasu.

. VII. Hirigintzako esku-hartze zehatzak: Nafarroako Gobernuaren “Tokiko Esku-hartze Planetako” aurrekontu-partidei esker, zenbait gune eraberritu dira Urrutia eta Etxarri Aranatz kaleen artean, San Kristobal eta Monreal kaleen artean, eta, azkenik, Milagro kaletik Irunberri kaleraino.

Zinegotziak erran duenez, hilabete baten buruan jakingo da eskuragarritasun finantzariorik dagoen azken esku-hartzeak egiteko.



. VIII. Hiri-baratzea: Onetsi da Alemaniarren Pasealekuko partzela batean baratze komunitario bat egitea; Nafarroako Gobernuak da partzelaren jabea.

Abaurreak dei egin du apirilaren 9an berriaz hori lantzeko egingo den bilerara; bileran, Alde Zaharreko Piparrika baratze komunitarioko kide batzuek parte hartuko dute.

□IX. Efidistrict: Abaurreak adierazi du oro har pozik daudela Efidistricteko bulegoak auzoan egindako lanarekin; horri esker, energetikoki eta estetikoki birgaitu dira zenbait eraikin (Orvinasen, adibidez) eta etxe baxu.

Azaldu du, halaber, San Miguel kolonia ezin izan zela proiektuan sartu, babestutako etxebizitzak ez zirelako, eta udalak konpondu egin nahi duela egoera, blokea eremu ahul izendatuz.

□X.- Biomasa-instalazioa: Zinegotziak adierazi du Baterako Plana onetsi ondoren dagoeneko ezar daitekeela biomasa-instalazio bat ospitale psikogeriatrikoaren ondoan, Txantreako kooperatibak energia elektriko hornitzeko.

Hurrengo urratsa izango litzateke instalazioa bera diseinatzea, kudeatuko duen erakunde publikoa ezartzea eta finantzaketa bilatzea; azken alderdi hori zailagoa da, zenbait milioi euro kostatuko baita.

□XI.- Aranzadi parkea: Mantentze-lanak egiten ari dira parkean, eta, zenbait hilabetez lanean jardun ondoren, aurreikusita dago apirilean parte-hartze prozesu bat aurkeztea, "*lehenbiziko fasea berroneratzeko proposamenak*" eta bigarren faseari loturiko bertze zenbait jarduketa aztertze, eta, hala, parkeari bizia, jarduerak eta edukiak emateko.

El Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du

Auzotarren parte-hartzeak eta galderak

Auzotarren parte-hartzeen eta galderen txanda hasi da, Floren Luquik gidatuta; haien edukia beheko taulan jaso da banakatuta:



Nork / quién propone	Tema/Gaia
Maria Asun Apesteguia	<p>Zalantzak ditu Salestarrak kudeatzeko asmoari buruz: adibidez, nor arduratuko den zentroa irekitzeaz eta ixteaz eta kudeaketako bertze zenbait alderdiz. Ados dago gune horretan Auzoko Unitatea jartzearekin.</p> <p>Bertze alde batetik, Felixen plazatik gertuko ataripe batzuk aipatu ditu, eta erran du “<i>txizatokia</i>” direla, eta zikin-zikin daudela. Eskatu du eremu hori egokitzeko ataripe bat itxiz; hala, erabilgarritasuna emango litzaioke han dagoen lokal txiki bati. Hain zuzen ere, administrazioak proposatu du erraldoien eta buruhandien konpartsak erabiltzea lokala.</p> <p>Magdalenaren gaiari dagokionez, beraren iritziz arazoak auzokideen arteko bizikidetzakoak dira, eta kontuan hartzekoak dira.</p> <p>Hiri-baratzeari dagokionez, ongi deritzo proiektuari, baina uste du Aranzadiko eremua edukita alferrikakoa dela baratze komunitarioa bertze hirigintza-eremu batera eramatea.</p> <p>Nahiko luke Efidistrict zerbitzua mantentzea, herritarrei laguntzen baitie. San Miguel aldean bizi diren herritarrei dagokienez, eskatu du gobernuak laguntza gehiago eman diezazkiela.</p>
Asier Urzaiz	<p>“Txantrean Poliki” proiektua mahaigaineratu du. Proiektuak proposatzen du zenbait kale oinezkoen gune bihurtzea eta bizikletarako ardatz seguru bat ezartzea. Proiektua egina dago, eta Hiri Ekologiako zinegotziari aurkeztu zioten; baina, Urzaizek erran duenez, ez diete ezer erantzun, eta gauzatu gabe geratu da; berak ez du ulertzen zergatik, oso arrazoizko kostua baitu.</p> <p>Halaber, Aranzadi parkean “komun lehorrak” ezartzeari buruz galdetu du.</p>
Auzotarra	<p>Aipatu du kaleak oso andeatuta daudela, eta zolatu gabe daudela. Adibidetzat jarri du Etxarri Aranatz kalea; argiztapena bertzerik ez da konpondu, gutxienez hamarkada batean. Mendigorria kaleari dagokionez, erran du zirkulazioa moteltzeko jarritako oztopoak eta sakanguneak saihesten dituztela autoek eta villavesek, eta hori kezagarria iruditzen zaiola, istripuak gertatzeko aukera handia baita eta arriskutsua baita; eta horrekin zerbait egiteko eskatu du.</p> <p>Efidistricten kontuan biziki interesatuta dago, estalki termikoaren gaiarekin lagundu diezaioten; eta, gainera, zerbitzu hori beharrezkoa ikusten du auzoarentzat.</p> <p>Nahi du bidegorri seguru bat egitea Txantreatik Alde Zaharreraino.</p>



Auzotarra	Kanalea kaleko semaforoak zirkulazioa oztopatzen du.
Xabi (Sinar Zubi)	Zamarbideko herritarrek parkerako duten irisgarritasunaz egin du galde. Eskatu du haurrentzako parke estali bat jartzeko. Haurrentzako Zerbitzuak egindako diagnostikoan ageri da haurrentzako parke estaliak behar direla.
Auzotarra (2)	Jakin-mina du Agustindarren komentuari buruz, zeina Aranzadin dagoen eta udalarena den, bandalismoa jasan baitu eta abandonatuta baitago. Beharrezko deritza Aranzadi eremuan gehiago lan egiteari, besteak beste, horrelako bandalismo-arazoak saihesteko.
Auzotarra (3)	Beraren iritziz, txakurrendako eremu bat arautu behar da Aranzadin, txakurrak solte ibiltzen baitira. Horrek arazoak eragiten dizkie nolabaiteko fobia duten pertsoneri inguru horretan paseatzen ari direnean. Proposatuta du txakurrendako eremu espezifiko bat ezartzea Aranzadin.

Cierre / Amaiera

Amaiera, Floren Luquiren eta Joxe Abaurrea zinegotziaren eskutik

Eztabaidagunea amaitutzat eman aurretik, auzoan egingo diren hurrengo topaketak gogorarazi ditu Luquik:

- Martxoaren 22a: Salestarrak.
- Apirilaren 9a (behin-behinekoa): Baratze komunitarioak.

Halaber, bertaratuak gonbidatu ditu Herritarren Partaidetzarako Udal Eztabaidagunera; martxoaren 22an izango da.

Udal-teknikariak zein zinegotziak eskerrak eman dizkiete etortzeagatik eta parte hartzeagatik. Zinegotziak gehitu du herritarren esanetara dagoela eztabaidagunearen formatua aldatzeko, horren beharra ikusiko balute.